



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA  
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C  
Tel: 948 76 43 75  
jvaezkoa@infolocal.org  
valledeaezkoa@gmail.com  
www.aezkoa.org

Ariben, 2020ko martxoaren 17an, 13:00etan, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin zuen, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

### **EGUNEKO GAIAK:**

#### **BERTARATUTAKOAK**

**Presidente jauna:** Karlos Bueno Reka

**Batzarrekide jaun-andereak:** Anchorena, Francisco Javier - Apat, Javier - Galarza, M<sup>a</sup> Carmen - Marrodan, Mikel - Zabalza, Izaskun.

#### **LEHENENGOA.- BAZKA-AZALERAK ESLEITZEA**

Aurreko urteetarako onartutako irizpideen arabera, bazka-azalerako hektareak esleitzeko eskaerak berrikusi dira. Aurten, iaz baino gehiago eskatu dira, eta lehengo instalazioen kopurua mantendu da, instalazio berri bat egin eta aurreko beste bat itxi baita. Banaketa egin da, eta hasiera batez ALU (UGM) bakoitzeko 1,4 hektareako gutxieneko kopurua esleitu da, eta gainerakoa aurreikusitako prozeduraren arabera. Hektareak banatu ondoren eskatutako kopurua eta lehen instalazioak osatu ez dituzten espedienteak behin-behinean geratu dira azken esleipenaren zain, hektarea-itzulketa egin baitaitekeelako, ohi bezala.

Aldaketaren bat egiten bada, esleipenen azken zerrenda aurkeztuko zaio berriro Landa Garapeneko Departamentuari.

#### **BIGARRENA.- BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO-KONTRATUA: ESLEIPENA.**

Aezkoako Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak 2019ko azaroaren 21ean egindako bilkuran onartutakoaren arabera, Orbaizetako Munizioen Errege Olako Jauregiko eraikinean behe-tentsioko instalazioaren kontratua esleitzeko lizitazioa egin da, prozedura irekiaren bidez, Nafarroako Kontratazio Atarian iragarkia argitaratuz eta Nafarroako Lizitazio Plataformaren bidez tramitatuz (PLENA). Kontratazio Mahaiaren aktak irakurri dira, jarraitutako prozesua garatzen dutenak. Kontratua POCTEFA SASCIRATI 2015 - EFA 063/15 proiektuko inbertsio-jarduketan barruan dago.

Lizitaziora hiru enpresak aurkeztu dute eskaintza, honakoak, hurrenez hurren: Montajes Eléctricos Pamplona SA (MEPSA), Telman Talleres Eléctricos y Mantenimiento SL eta Manelsa SL.

Horiek guztiek dokumentazioa aurkeztu eta balorazioa baldintza-agirian ezarritako irizpideen arabera egin ondoren, puntuazio hauek lortu dituzte:

	Propos teknikoa	Kontrata-ondorengo zerbitzua	Eskaintza ekonom	Exekuzio epea	Berme osagar	Giza-arloko baldintz	GUZTIRA	Eskaintza Zenbateko (BEZa gabe)
	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	€
Manelsa	18	3	45,07	6	4	10	86,07	73.338,04
Telman	20	5	46,69	6	10	4	91,69	69.820,86
MEPSA	16	3	50,00	6	10	7	92,00	65.200,00

Kontratuaren hasierako zenbatekoa 78.450,41 eurokoa zen.

Kontratazio-mahaiak MEPSA enpresaren aldeko kontratazio-proposamena egitea erabaki du, aurkeztutako enpresen artean puntuaziorik handiena lortu baitu, eta, kontratazioa arautzen duen baldintza-agirian xedatutakoaren arabera, esleipen-proposamenaren xede den lizitazileari jakinarazi zaio, baldintza-agiriko 14. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezan. 2020ko martxoaren 13an aurkeztu da, Batzarre Nagusi honen erregistroan agertzen denaren arabera.

Kontratazio Mahaiaren aktak ikusita, Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak erabaki du Montajes Eléctricos Pamplona SA enpresari esleitzea Orbaizetako Munizioen Errege Olako Jauregiaren eraikinean behe-tentsioko instalazioa jartzeko kontratua, enpresa horrek lortu baitu puntuaziorik handiena, HIRUROGEITA BOST MILA ETA BERREHUN EURO (65.200,00 €) gehi BEZa, kontratu honen lizitazioa arautzen duen baldintzekin eta aurkeztutako proposamenarekin bat etorriz. Esleipen hori etenda geldituko da, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipenaren jakinarazpena igortzen denetik hamar egun naturaleko epean.

Esleipen hau lizitazioan parte hartzen duten enpresa guztiei jakinaraziko zaie, bidezko ondorioetarako.

Martxoaren 14an, 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera ezarri zuen estatuaren lurralde osoan. Hirugarren xedapen gehigarriak administrazio-epeak etetea ezartzen du, eta, beraz, esleipen honen izapideei dagozkien epe guztiei aplikatuko zaie, bai eta gai-zerrendan aurreikusitako hurrengoari ere. Epe horiek etenda geldituko dira alarma-egoera eta, hala badagokio, ondorengo luzapenak amaitu arte. Esleipena eta gainerako izapideak eteteko epeen zenbaketa alarma-egoera kendu edo aldaketa espezifiko bat arautu ondoren hasiko da berriz.

#### **HIRUGARRENA.- IGOGAILUA JARTZEKO KONTRATUA; ESLEIPENA.**

Aurreko puntuan bezala, Orbaizetako Munizioen Errege Olako Jauregiko eraikinean igogailua jartzeko kontratua esleitzeko lizitazioa egin da. Kontratu hori Aezkoako Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak onartu zuen, 2019ko azaroaren 21ean egindako bilkuran. Lizitazioa prozedura irekiaren bidez tramitatu da, Nafarroako Kontratazioaren Atarian iragarkia argitaratuz eta Nafarroako Lizitazio Plataformaren bidez (PLENA). Kontratazio Mahaiaren aktak irakurri dira, jarraitutako prozesua garatzen dutenak. Kontratu hau POCTEFA SASCIRATI 2015 - EFA 063/15 proiektuan garatu beharreko jardueren barruan dago.

Lizitaziora enpresa bakarra aurkeztu da, Schindler, eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu du.

Enpresak egindako proposamena baloratu da, baldintza-agirian ezarritako irizpideen arabera, eta puntuazio hauek lortu ditu:

Propos teknikoa	Kontrata-ondorengo zerbitzua	Eskaintza ekonom	Exekuzio epea	Berme osagar	Giza-arloko baldintz	GUZTIRA	Eskaintza Zenbateko (BEZa gabe)
Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	€
11,5	4	4	10	2	50	81,50	26.880,50

Kontratuaren hasierako zenbatekoa 29.540,82 € ziren, gehi BEZa.

Kontratazio-mahaiak erabaki du Schindler enpresaren aldeko kontratazio-proposamena egitea, haren proposamena baldintza-agirian zehaztutakoarekin bat datorrelako. Jakinarazi da esleipen-proposamena haren aldekoa dela, baldintza-agiriko 14. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezan; eta 2020ko martxoaren 17an aurkeztu zuen, Batzarre Nagusi honen erregistroan jasota dagoen bezala.

Kontratazio Mahaiaren aktak ikusita, Batzarren Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du Orbaizetako Munizioen Errege Olako Jauregiko eraikinean igogailua jartzeko kontratua esleitzea Schindler SArri, hau da, HOGEITA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMORI (26.880,50 €) gehi BEZari, kontratu honen lizitazioa arautzen duen baldintzekin eta enpresak aurkeztutako proposamenarekin bat etorritz. Esleipen hori etenda geldituko da, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipenaren jakinarazpena igortzen denetik hamar egun naturaleko epean.

#### **LAUGARRENA.- JAUREGIA: INSTALAZIOEN AMAIERA ETA HORIEN KUDEAKETA.**

Jauregiaren eraikina martxan jartzeko egin beharreko lanak amaitzeko azken asteetan egin denaren berri eman da. Batzarre Nagusia zenbaitetan bildu da Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuko teknikariekin, eraikinean ondareari balioa emateko kontratuaren enpresa esleipendunarekin, beste aholkulari batzuekin (diseinukoak, instalazioetakoak...) eta errekatzaileen inguruko erakusketa dohaintzan eman zuenarekin, Goikoa jaunarekin. Une honetan, gai nagusia harrera-eremua diseinatzea da, ibilbide koherentea izan dezan eta bisitarien sarrera kontrolatu ahal izan dadin. Horregatik, behesolairuan aurreikusitako espazioaren zati bat lehen solairura aldatzeko aukera aztertu da, bisitarienezako arreta-zerbitzuak eta atsedenguneak sarreratik eta igogailutik zuzenean sartzeko eremu hori har dezaten.

Taberna-kafetegi zerbitzuaren hornidurari dagokionez, hasiera batean proposatu da guneak prest uztea eta etxetresna elektrikoek erosteko aurrekontura eta hasierako beharretara egokitzea. Behin betikoa ezartzeko berrikusi behar diren hainbat banaketa aztertu dira. Dagoeneko eskatu da aurrekontu bat eremu komunetarako, onarpen-eremuetarako eta tabernarako. Lan-mahai bat egingo da Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, kudeaketa eta erakusketak aztertzeko.

Jakinarazi da, halaber, POCTEFA proiektuaren administrazio-kudeaketa egiten duen enpresaren bidez eskatu dela kontuan har daitezela koronabirusak kutsatzea saihesteko hartutako neurriek proiektuko epeak betetzean eragin ditzaketen eraginak, eta proiektuaren azken entregarako luzapena izan daitekeela.

#### **BOSGARRENA.- IRATI 2020: INFORMAZIO-ZERBITZUA.**

Gobernuak alarma-egoera deklaratu ondoren eta zirkulazioa murrizteko neurriak hartu ondoren, une honetan egoerak ez dio uzten Batzarre Nagusiari langileak hautatzen, urte horretarako zaintza-zerbitzuko lanpostuak osatuko dituen kontratazio-zerrenda baterako. Neurri horiek zenbat iraungo duten ere ezin da jakin; une honetan hamabost egunekoak dira, baina baliteke luzatzea eta Aste Santuari eragitea.

Batzarre Nagusiaren ustez, gaur egun dagoen aukera bakarra da hartzen diren neurriei jarraitzea eta erabakiak egoeraren arabera hartzea; eta, beraz, oraingoz ez zaie Aste Santuan lan egiteko deialdirik egingo kontratu aldizkako-mugagabea duten langileei, Zaraitzuko Ibaixaren Batzordea egiten ari den modu berean. Asterako informazio-puntua irekitzea posible izanez gero, kontratu mugagabeko langileak izango lirarteke, eta aztertuko da normaltasunez funtzionatu ahal izan arte izan den zerbitzua antolatzeke modua, ordutegia eta abar.

Erabaki hori langileen ordezkariarekin aztertuko da, eta langileei jakinaraziko zaie, bidezko ondorioetarako.

#### **SEIGARRENA.- MUNIZIO-OLAKO APARKALEKUA.**

Orbaizetako Munizioen Olan exekutatzeko aparkaleku-proiektua egin ondoren, dagozkion baimen-eskaerak tramitatu ziren, besteak beste, Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuan, eta hark erantzun du ez duela egokitzat jotzen aurreikusitako kokapena, uste baitu barrutirako sarrera dela leku egokia, gaur egun ibilgailuak aparkatzen diren tokia baita. Halaber, ez dute uste une honetan azken zona hori aparkaleku gisa konpontzea planteatu behar denik; izan ere, aurreko urteetan bezala, Nafarroako Gobernuak jarduketak egingo ditu fabrikaren esparruan, eta, beraz, garabi bat instalatzea eta toki horretan bertan karga duten kamioiak zirkulatzea aurreikusten da, eta, ondorioz, egindako edozein jarduketa hondatuko da. Landu den azken proposamena da une honetan konponketa bat egitea, aurrerago behin betiko aparkalekua egiten jarraitzeko, hala nola oinarria materialarekin prest uztea, baina hori ere ez da onartu.

Beraz, olako esparruaren ondoan aparkatzeko dauden bi aukerak baztertu egin dira oraingoz.

Bada hirugarren aukera bat, olako barrutitik askoz urrunago gelditzen dena: harrobia egokitzea. Olako eremuan edozein lan egiteko gaur egun dagoen egoera ikusita, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari kokapen horri buruzko txostena eskatzea erabaki da, behin betiko proiektua egin aurretik.

#### **ZAZPIGARRENA.- ONDARE-ARLOKO LGP KONTRATUAREN LUZAPENA**

Eskaera bat aurkeztu zitzaion Cederna-Garalur Elkarteari, Jauregiko eraikinean ondarea balioesteko hornidura-proiektua gauzatzeko epea luzatzeko, eta baimena eman zitzaion exekuzio-epea ekainaren 30era arte luzatzeko.

Kontuan hartu da behe-tentsioko instalazio-proiektuaren lizitazio- eta esleipen-prozesuak atzerapen handia izan duela, obra-lizentzia lortzeko arazoak izan direlako (aldez aurretik proiektu gehigarri bat egin behar izan delako Jauregiko eraikineraino iristen den lineari potentzia nahikoa emateko), eta funtsezkoa zelako ondarea balioesteko obrak behar bezala egiteko. Aldi berean, argi-puntuetarako, energia-harguneetarako eta abarretarako behar espezifikoa zehazteko eta jada instalatuta dauden ekipo guztien funtzionamendu-probetarako beharrezkoa den koordinazioagatik, Osoko Bilkurak, Ondareari balioa emateko kontratuaren enpresa esleipendunarekin gaia aztertu ondoren, eta lanen zuzendaritza teknikoak erabaki dute hornidura-kontratua gauzatzeko epea luzatzea, hilaren 1era arte. Luzapen horrek, hornidura gehienak eginda daudenez, eragina izango du ikus-entzunezko ekipoak instalatu eta martxan jartzean eta argi-puntuak Ondareari balioa emateko proiektuko instalazioekin behar bezala koordinatzean.

## **ZORTZIGARRENA.- HAINBAT**

- Gaur egungo egoera dela-eta, Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, udaletako alkateak, Eutsi enpresa eta Osasun Zentroa ados jarri direla jakinarazi da, koronabirusaren aurkako neurriek irauten duten bitartean herritarrei laguntza-zerbitzuei eta -sareei buruzko hainbat gomendio eta informazio helarazteko. Laguntza-sareak osatu dira, Aezkoan bai eskualdean. Informazio-orri bat egin da, bizilagun guztiei banatuko zaiena. Bertan, larrialdietarako eta premietarako telefonoak eta harremanetarako pertsonak adieraziko dira, bai eta kutsadurak prebenitzeko oinarritzko aholkuak ere. Komunikazio guztiak ezarritako bideetatik hedatuko dira.

- Aurrez aurreko bilerak

Aurrez aurreko bilerak egitea ezinezkoa denez, komunikazio-talde bat sortu da Whatsapp aplikazioaren bidez, abeltzainei abisuak helarazteko.

- Nafarroako Kutxa Fundazioa.

Jakinarazten da Fundazioak ukatu egin duela ekitaldi honetan Ondareari balioa emateko egingo diren lanetarako laguntza. Erakunde horrek hamahiru mila seiehun eta berrogeita zortzi euro eta hirurogeita zortzi zentimo eman dizkio proiektuari.

- Sare sozialak

Batzordearen profilak sortzeko eta mantentzeko aurrekontua eskatu zen hainbat sare sozialetan, bereziki facebook eta twitter sareetan. Aurkeztutako proposamena berrikusi da, eta, aurrekontu-aurreikuspenengatik aurten jarduera hori nekez egin ahal izango dela ulertuta ere, beste erakunde batzuetan administrazioaren informazioa sare sozialetan nola bideratzen den galdetzea erabaki da.

- Munizio-olako piezak

Gaur egun Nafarroako Museoaren esku dauden munizioen fabrikatik datozen piezei buruzko informazioa berrikustea erabaki da, Jauregiko

eraikinean martxan jartzen diren erakusketatarako uzteko eskaera egin ahal izateko.

### **BEDERATZIGARRENA.- GALDE-ESKEAK.**

Ez dira gertatzen

Eta beste aztergairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da arratsaldeko ordu biak eta berrogei minutuak zirela. errandakoa biltzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, ziurtatzen dut.